

AMELIAK TXAKUR BAT NAHI DU

Testua: **TIM BOWLEY**

Irudiak: **ANDRÉ NEVES**

Itzulpena: **FERNANDO REY**

Azal gogorrean egina. 22 x 22 cm. 36 orr. 13 €.

IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)
GOMENDAGARRIA - Irakur Gida 2008 (Mondragon Unibertsitatea)

Ameliak txakur bat nahi du (euskara)

ISBN 978-84-7681-565-6. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

Amelia quiere un perro (gaztelania)

ISBN 978-84-96388-29-1. Obras de autor. Primeros lectores.

Amelia quere un can (galegoa)

ISBN 978-84-8464-649-5. Demademora.

L'Amèlla vol un gos (katalana)

ISBN 978-84-16804-67-2. Obres d'autor. Primers lectors.

Amélia quer um cão (portugesa)

ISBN 978-972-8781-99-6. Obras de autor. Primeiros leitores.

Amelia vuole un cane (italiera)

ISBN 978-88-95933-15-3. Gli albi d'autore. Primi lettori.

Amelia wants a dog (ingeleza)

ISBN 978-84-8464-680-8. Books for dreaming.

*Amelia egongelan sartu zen. Aita eserita zegoen,
bere gustuko aulkian, egunkaria irakurtzen.*

–Aita –esan zuen Ameliak–, zera pentsatzen ari nintzen...

*Aitak hasperen egin zuen. «Amelia pentsatzen hasten bada,
problema-iturri, gehienetan bezala», esan zuen bere artean.*

Ameliak jarraitu zuen:

–Aita, izan genezake txakur bat?

Batzuetan itzulinguruka hasi behar izaten dugu norabait iristeko;

bi puntaren arteko bide laburrena ez da beti bide zuzena.

Amelia itzulinguruka dabil txakurkume bat nahi duenean.

Hori du estrategia. Arranoa edo balea, zaldia edo elefantea.

Gero eta gauza xebeareagoak esaten ditu Ameliak,

aita konbentzitzen saiatzeko.

Haurrak zeinen axeriak izan daitezkeen erakusten digu istorio honek, eta, bestetik, zer kasu gutxi egiten diegun helduok haurrei hutsalkeriak diruditen gauzetan. Kontakizunak oso egitura nabaria du. Tim Bowley ahazko literaturaren baliabideak erabili ditu -errepikapena eta progresioa-, irakurlearen arreta bereganatzeko.

Liburu koloretsua da. Proposamen estetiko honetan teknika mistoaz eta collageaz baliatzen da umeak erantzukizunaren kontzeptua uler dezan: kasu honetan animaliatxo batek zer betebeharrak eta zainketa behar dituen. Bestetik, besterik ere azaltzen dio: zer animalia bizi daitezkeen etxean, eta zeinek bizi behar duten libre.

www.

.com

comu **kalandraka**

www. **Pamiela** .com
etxea
soltxate@pamiela.com



■ **Gaia:** haurren estrategiak, nahi dutena lortzeko.

■ **Gomendatutako adina:** 5 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** “[Jaime y las bellotas](#)”,

“[El Rey Oso Blanco](#)” eta “[No hay escapatoria](#)”

liburuaren egilea; “[Tximeleta belarriak](#)”

liburuaren irudigilea; haurrei adieraztea

animaliatxo bat izateak erantzukizuna dakarrela.

■ **Liburuaren aurrerapena:**

https://issuu.com/kalandraka.com/docs/amel_iak-eusk_c0367bcf3ea8bb

Tim Bowley

(Londres, 1945 - 2017)

Ipuin-kontalaria, eta mundu osoko herri tradizioaren istorioetan espezialista. Bere ibilbidean, 25 urtez, herrialde askotan egin zuen lan, eta irakasle aritu zen ipuin kontalarientzat. Erresuma Handian argitaratutako kontakizun antologia batean hartu zuen parte. Casilda Regueirok itzulitako “Semillas al viento” liburu elebidunaren egilea da (ingeleza-gaztelania), bikote artistiko izan baitziren hamar bat urtez. Geroago, Charo Pita narratzailearekin egin zuen lan. Umeentzako bibliografian hauek dira nabarmenezkoak: KALANDRAKAK argitaratutako “Jaime y las bellotas”, “Ameliak txakur bat nahi du”, eta “El Rey Oso Blanco” eta “No hay escapatoria”.

André Neves

(Recife, Brasil, 1973)

Komunikazio Sozialean eta Harreman Publikoetan graduatua Pernambucoko Unibertsitatean. 1995. urtean Arte Ikasketak egiten hasi, eta marrazki eta margolanen zenbait erakusketatan hartu zuen parte. Sarmedeko udako eskolan aritu zen ikasten, Italian. Besteak beste, Haur eta Gazteentzako Liburuatarako Fundazio Nazionalaren saria eta Brasilgo Idazleen Elkartearena jaso ditu. 2002an “Stepan Zavrel” Haurrentzako Irudien XX. Erakustazokan hartu zuen parte. Gaur egun idazle, irudigile eta diseinatzaile grafikoa da Porto Alegren (Brasil).

<https://www.facebook.com/AndreNevesIlustrador>

